

COVID-19 NEWSLETTER

Polonia 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA


Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an % 1,2 eta % -10 bitartean	Inflazioa gaur egun % 3,4
PMI Indizea maiatzean 40,60 pkt (8,70 pkt)	Langabezia % 5,7

EUR/PLN kanbio-tasa (2020.06.02): 0,23€ / PLN // 4,42 PLN/EUR


Inpaktua sektore industrialetan

Industriako PMI zerbitzuetakoa baino gutxiago jaitsi da elikagai eta plastikoen eskaeragatik

 **Automozioa:**
Ekoizpena partzialki berrabiarazi da Volkswagen,
Toyota, PSA eta FCA enpresen lantegietan

Inbertsio plan berri bat egin da sektore hauentzat:
azpiegiturak, eskolak eta ospitaleak, digitalizazioa,
energiaren eraldaketa eta ingurumena

Inpaktua zerbitzuetan

 Sektore kaltetuenak: aireko garraioa, turismoa,
ostalaritza zerbitzuak, automozioa, negozioei
laguntzeko zerbitzuak

Burdinbideak eta garraio publikoa
Mugatuta baina normaltasunez funtzionatzen dute

Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Urteko oinarriaren gaineko erreferentzia-tasa % 0,10ekoa da
- ❖ Gutxieneko uzkuradura-tasa urteko % 0,50ekoa da
- ❖ Urteko oinarriaren gaineko gordailu-tasa % 0koa da
- ❖ Kanbio-letren birdeskontu-tasa urteko % 0,11koa da
- ❖ Kanbio-letren deskontu-tasa urteko % 0,12koa da



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK



Poloniako gobernuak krisiari aurre egiteko prestatu duen babesa

- ❖ **Lan merkatuarentzako laguntzak.** Balioetsitakoa guztira: 30.000 milioi zloty (24.000 milioi zloty gastuetan, 6.200 milioi zloty likidezia hornitzeko)
- ❖ **Enpresentzako laguntzak.** Balioetsitakoa guztira: 74.000 milioi zloty (5.000 milioi zloty gobernuaren gastuetarako, 69.000 milioi zloty likideziari laguntzeko)
- ❖ **Osasun laguntzarentzako babesa.** Balioetsitakoa guztira: 7.500 milioi zloty, dena gastuetarako
- ❖ **Banku-sistemaren segurtasuna.** Balioetsitakoa guztira: 70.000 milioi zloty likidezia bermatzeko
- ❖ **Inbertsio-programa.** Balioetsitakoa guztira: 30.000 milioi zloty gobernuaren gastuetarako (funts propioak, ez EBrenak)
- ❖ **Beste gai batzuk:** Polonian lan egiten duten atzerritarrentzako lan baimenak automatikoki luzatuko / berrituko dira. Zerga erreformen eta pentsioen erreformaren aplikazioa hurrengo urtera atzeratuko da
- ❖ **Poloniako Garapen Funtsaren (PFR Polski Fundusz Rozwoju) babesa krisiari aurre egiteko.** Balioetsitakoa guztira: 100.000 milioi PLN




MUGAK


Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

-  **Merkatu-gaien garraioak** berdin jarraitu du lanean
-  **Aireportuak** itxita daude, momentuz, ekainaren 1era arte

Biztanleriaren mugikortasuna

-  Larrialdi egoera epidemiologikoa deklaratu zen martxoaren 20an, eta hainbat muga ezarri ziren



-  Erabat itxita daude **eskolak, unibertsitateak, merkataritza-guneak**

Poloniako Gobernuak "Lot do Domu" etxera itzultzeko programa jarri zuen martxan, zeinak 45.000 pertsona aberriratu baititu LOT Polish Airlines konpainiaren 400 hegaldiren bidez. Programa hori apirilaren 5ean bukatu zen

Ekonomia suspertzeko plana aurkeztu da. Apirilaren 20tik (astelehena) aurrera hasiko den lehen fasean posible izango da:

- Parke eta basoetara joatea. Oraingoz ezingo dira erabili hauren parkeak. Baso eta parkeak irekitzek ez du esan nahi edonola egon daitekeenik gune horietan, zuhurtasunez jokatu behar da
- 13 urtetik gorakoak kalera atera ahal izango dira adinez nagusi batek lagundurik
- 100 m² baino gutxiagoko azalera duten dendetan 4 bezero sartu ahal izango dira kutxa / erakusmahai bakoitzeko. 100 m² baino gehiagoko azalera duten dendetan pertsona bat sartu ahal izango da 15 m²ko
- Elizetan ospatzen diren elizkizunetan (hiletak barne) pertsona bat sartu ahal izango da 15 m²ko

Bigarren fasea (maiatzak 4tik, astelehenetik, aurrera):

- Eraikuntzako materialak saltzen dituzten merkataritza-gune handiak asteburuetan irekiko dira
- Hotelak eta bestelako ostatuak irekiko dira (murrizketa batzuekin)
- Hainbat kultur-erakunde irekiko dira: liburutegiak, museoak eta arte-galeriak
- Merkataritza-guneak irekiko dira
- Haurtzaindegiak irekiko dira

Hirugarren fasea (maiatzaren 18tik, astelehenetik, aurrera):

- Ile-apaindegiak eta edertasun-zentroak irekiko dira
- Jatetxeak eta kafetegiak irekiko dira zerbitzu presentziala emateko, baina murrizketekin

Laugarren fasea (ekainaren 6tik, larunbatetik, aurrera):

- Masaje-areto eta errehabilitazio-zentroek, gimnasio eta *fitness*-zentroek, antzokiek eta zinemek irekiko dute, osasun arloko baldintzak betetzen badituzte



Mugetako egoera



Nazioarteko aireko trafikoa eta nazioarteko burdinbideetako trafikoa itxita daude ekainaren 15era arte, mugen itxiera sanitarioa derrigorrezkoa da eta muga gurutzatzen duten guztiek, 14 eguneko berrogeialdia igaro behar dute, mugaz gaindiko langileek izan ezik